



## HAUTATZEKO ORDUA

Maiatzaren 22an erabakiko da Azpeitiko Udalak datozen lau urteetan izango duen ordezkari politiko 16



## Orain **Miele** garbigailua erosita

- Mieleren **100€**ko deskontua
- Eusko Jaurlaritzaren **BERRITZE PLANARE**kin  
145 € arteko deskontua

**Guztira 245€ko deskontua  
eskura dezakezu!**

**Berritze edo renove planean sartzen diren elektrogailuak :  
GARBIGAILUAK, ONTZI GARBIGAILUAK,  
HOZKAILUAK-KONBIAK, IZOZKAILUAK, INDUKZIO  
PLAKAK eta LABEAK.**

- MIELE-ren 100 €-ko deskontua Maiatzak 31 arte.
- Eusko Jaurlaritzaren deskontua laguntzak agortu arte.



**IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN**



# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 128.a (2011ko maiatza)  
**Urtea.** XII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730 792 /  
 oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Eregi  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



**Uztarriak Bai Euskarari** Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



## ||| 2011KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||



### iritzia

**Inkesta.** Zer egin duzu Aste Santukoetan? **13**

### mamia

**Maite Santos.** Feng Shui metodo klasikoan espezializatua da eta energia positiboa duten espazioak aukeratzeko laguntzen du **04**  
**Elkarrizketa informala.** Janire Alkorta tabernariarekin motxean **32**



### jakiteko

**Bestaldetik.** Literatura kontuez gain, zer du kontatzeko Xabi Bordak? **34**  
**Hi heu!** Solasean, Ihintza Larrañaga artisauarekin **37**

**Ba aL dakizu udal-hauteskundeetako hautagaien artean gizonaezkoak 55 direla eta emakumezkoak 54?** **Uztarrria**


# egin zaitez bazkide Uztarrian 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarriak liburuxka gehiago aterako ditu)

**1.157** bazkide **30** euro dira urtean.  
 gara dagoeneko Uztarrian; 106.400 euroko aurrekontua  
 eskerrik asko denei. du Uztarriak 2009. urterako.



# MAITE SANTOS

Feng Shui metodo klasikoan espezializatua

“Behin hasita, jendeak gustura egiten du”

Energia positiboa duten espazioak aukeratzeko eta barne diseinurako erabiltzen du Feng Shui. Espazioa ‘orekatua’ izatea garrantzitsua dela dio. 📧📞 A. Agirrezabala

**D**ituen ametsak betetzea, helburu hori du bizitzan, eta mutil-laguna eta biak “Pekin Spres txikia” egitera irte-nak dira, hamar hilabeterako. Ze-elanda Berrian, Australian eta Indian izango dira, eta herrira itzultzean Feng Shui aplikatuz lanari helduko dio buru-belarri.

## Hasteko, zer da Feng Shui?

Artea eta zientzia oinarri dituen filosofia da. Inork ziur jakin ez arren, bere jatorria garai bateko Taoistek natura aztertzeke zuten ezagutzarekin erlazionatzen da. Hitz txinatar horiek haizea eta ura esan nahi dute, gure bizitzarako beharrezkoak diren bi elementu.

## Zertan lagundu dezake?

Arkitekturan, barne diseinuan, hirigintzan, lursail osasuntsuak au-

keratzeko... erabiltzen da metodologia hau. Espazioaz gain natura eta pertsonaren arteko erlazioa ere lantzen da: leku egokia aurkitu emaitza onak izateko eta norbera ondo sentitzeko. Garai bateko Feng Shui ikasten zuten irakasleek natura eta bere ingurumena aztertzen zuten: naturaren elementuak, erreken emariak, euriteen eragina, haizeak... Egungo irakasleok horiez gain trafikoak kalean, etxebizitzetan, auzoetan... duen eragina ere aztertzen dugu.

## Zeintzuk dira Feng Shuiren bideak?

Feng Shui tradizionala bi korrontetan oinarrituta dago: Formaren Eskola Zaharra eta Iparrorratza-ren Eskola. Aurrenak ingurune naturala aztertzen du, eta formaz

## |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1982ko irailak 1.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**

Barne dekoratzailea, Feng Shui metodo klasikoan espezializatua.

|||**Harremanetarako:**  
maitesantos@yahoo.es

gain argitasuna ere oso garrantzitsua da. Bigarren eskola, aldiz, kalkulu sistematikoetan oinarrituta dago. Orientazio kardinalak eta etxebizitzaren eraikitze urtearekin egindako kalkulu matematikoa ateratzen da, astrologia kontutan izanik. Bi metodo horiek landu ostean lortzen den emaitza egoera askoren azalpena argitzen lagundu dezake, eta, ondorioz, espazio, negozio eta pertsonen beharrak orekatzeke bidea eskaini. Feng Shui-k gaixo dauden inguruneak ekiditu eta energia positiboa dutenetaz inguratan lagundu behar gaitu.

## Nolatan izan zenuen filosofia honen berri?

Magisteritza berezia ikasi nuen aurrena, eta barne diseinua gero.



Diseinu konbentzionalean egin nuen lana bi urtez, baina espazio bat aztertzean zaila egiten zitzaidan dekorazio estetikoan bakarrik geratzea. Zerbait ezberdina aurkitu nahi nuen. Halako batean, Feng Shui buruzko liburu bat oparitu zidaten eta interesgarria iruditu zitzaidan metodoa. Hala, Bartzelonara joan nintzen Feng Shui ikastera.

### **Azpeitian lan bat ere egin duzu, ezta?**

Bat baino gehiago, eta emaitzeekin oso gustura geratu naiz. Lanaren emaitza pixkanaka joaten da agertzen, lasaitasunetik. Nik proiektua entregatzen dut, eta gero, bakoitzak hartzen du bere denbora aldaketak egiteko. Kasu diferenteak izan ditut. Aurrenekoz Bartzelonako familia batekin egin nuen eta haiek segituan hasi ziren aldaketekin; Azpeitiko beste proiektu batean bi urte pasatu dituzte dena amaitzeko.

### **Zer zati ditu prozesuak?**

Lehenengo 'hustuketa' dator, batzuentzat gogorrenetakoa: etxean pilatuta ditugun elementu guztiak aztertu eta beharrezkoak direnekin baino ez gara geratuko. Prozesu horretan gogorarazten diet ingurura begirada bat bota eta baloratzeko ia guk botatzea pentsatu duguna beste norbaitek behar duen. Bigarren urratsean espazioaren energiak, kanpo elektromagnetikoak eta mikrouhinak neurtzen ditut. Azkenik, Formaren Eskola Zaharra eta Iparrotzarrena aplikatzen ditut.

### **Aholkatutako aldaketak nabari dituzte etxe jabeek?**

Bai. Era askotako ondorio positiboak izan ditut. Batzuei gogorra goa egin zaie prozesua. Ez dago imaginatzerik emozionalki zeinen erraz lotzen garen objektu eta arropetara. 'Egunen batean jantziko dut, pare bat kilo kendutakoa...'; baina sekula ez da iristen une hori. Behin hasiz gero jendeak gustura egiten du prozesua.

### **Espazioak garrantzia handia du, ezta?**

Edozein espazio orekatuta eta



egoki edukitzea oso garrantzitsua da. Askotan entzun izan diot jendeari esaten: 'lanean nekatu egiten naiz', 'ezin naiz kontzentratu', 'burukominez amaitzen dut', 'umeak ezin du lorik hartu'... Aztertzeraz joan eta sorpresa askorekin aurkitu gara: uhin elektromagnetiko eta mikrouhin handiko espazioak, kolore gogorrak, espazio ilunak, tristeak, distribuzio ez oso lagungarriak... Guzti horiek ez dute batere laguntzen.

### **Faktore horiek zenbateraino eragin dezaketen ez gara kontziente, ezta?**

Orokorrean, ez. Askotan geure barruari ez diogu galdetu ere egiten nola sentitzen garen. Pena da, askotan zerbait gogorra pasa behar zaigu –istripuak, gaixotasunak, familia arazoak, depresioak...– konturatzeko zer den bizitza, zer egiten ari garen, nola bizi dugun. Beti esan izan da egoera gogorretatik pertsonok asko

ikasten dugula, baina pixkanaka egin ahal bada, zergatik ez hasi?

### **Gaur egun etxeetan dena koloretsua da, papera...**

Niri kolorea gustatzen zait, baina harmonia eta oreka batekin. Kolore gogorrekin luzarora nekatzeko aukera dago. Aldatzeko errazak diren detaileetan saiatzten naiz kolorea sartzen.

### **Etxeak aukeratzen ere lagundu izan duzu, ezta?**

“Emozionalki oso erraz lotzen gara objektu eta arropetara”

“Espazio denek dute soluzioa, baina badaude zailagoak direnak”

Etxea erosterako aholkuak emanez ere laguntzen dut. Etxe batzuk forma arraroak dituzte, oso ilunak dira, aldaketak egiteko inbertsio handiak eskatzen dituzte eta beste askotan ezin da ezer handirik aldatu. Planoak ere bidali izan dizkidate, iritzia eskatuz. Orokorrean, espazio denek dute soluzioa, baina badaude batzuk zailagoak direnak, eta horiek ez ditu inork erosi nahi izaten. Niretzako etxebizitza oso garrantzitsua da, pilak kargatzeko lekua dela esan genezakegu.

### **Feng Shui ezagutu aurretik Maite bat al zegoen, eta orain beste bat al dago?**

Lehenengo Maite eta oraingoa baino, Maite bera bizitzaren beste ikuspuntu batekin, esango nuke. Baina ez honengatik bakarrik, bizitzan izandako esperientzia guztiengatik baizik. Bizitzako gauza txikiei balore gehiago ematen diet orain.\*



# Udaberriko uzta

# U

daberria bere osotasunean aurkitzen den honetan iritsi da uzta berezi bat jasotzeko garaia, lau urtetan zehar mimo guztiaz nekazari berezi batzuek hazitakoa. Batek baino gehiagok susmatuko zuen bezala hauteskunderi buruz ari nintzen eta nekazari berezi horiek gure politikariak dira.

Hauteskundeak iristean beharrezkoa da beti ere jokoan zer dagoen gogoraraztea. Nahiz eta askotan jolas hutsa diruditen, gure bizitzan eragina izango duten erabakiak hartuko dituztenak aukeratzeko ditugu.

Aukeraketa hau egiterakoan zer aukera ditugun gogoraraztea gustatuko litzaidake. Bat, bozkatu; bi, ez bozkatu eta beraz abstenitu; hiru, botoa zurian eman eta azkenik boto nulua eman. Beharbada zalantza gehien sortzen duena boto zuriarena da. Nori laguntzen dio? Zertarako balio du? Soziologo gehienek ikerketen arabera boto zuriak gehiengoa duen alderdiari laguntzen dio, zeren nahiz eta ez den inoren alde emandako bozka, baliozko botoen artean kontaktatzen da. Botoa zurian ematea protesta bezala kontsideratu izan da denbora luzez, baina ikusten duzuen bezala ez dio ez alderdie eta ez sistema politikoari berebiziko minik eragiten.

Abstentzioarena beste kontu bat da. Kasu honetan, milaka arrazoi egon daitezke bere botoa emateko eskubideari muzin egin dien pertsonen gizataldean. Baina nagusiki bi izaten dira arrazoi nagusiak: sistemarekiko desadostasuna edo politikarekiko interes falta. Bigarren arrazoi hau gero eta gehiago gazteei botoa ez ematera bultzatzen dien arrazoi nagusia omen da, batzuentzat belauadi berrien utzikeria bezala ulertua.

Baina abstentzioa sistemarekiko desadostasun bezala ulertua fenomeno berri zein interesgarria da. Oso zaila da abstentzioaren gorakadak eta beherakadak interpretatzea baina herrialde eta hauteskunde batzuetan nabaritu izan da abstentzioa sistema politikoarekiko kexa tresna bezala erabili izan dela.



markel mendizabal


## Partehartzea asko murrizten bada emaitza haien zilegitasuna ez da hain sendoa

Kontutan izan abstentzioak min egiten diela alderdi politikoei eta luzapenez sistema politikoari. Partehartzea asko murrizten bada emaitza haien zilegitasuna ez da hain sendoa. Hori politikariek badakite eta horregatik beti partehartzea sustatzea da beraien helburu nagusienetakoa.

### Partehartzeko aukera bai?

Gure herriko kasuan hauteskundeetako partehartzearena gogoia baino aukera kontua da. Ikusteko dago oraindik alderdi eta sentibiltate guztietako alderdiak aurkeztu ahalko diren, baina Auzitegi Gorenaren jokabideak ez du ezer onik aurreikusten. Bere burua demokraziaztat aitoritzen duen sistema batean pentsaezina litzateke arrisku hau egotea, baina garbi dago demokrazia berezi batean bizi garela, non batzuen partehartzeko esku-bideak bigarren mailakoak diren.

Ea azkenean herritarren partehartzeko go-goak eta aukerak ez diren ezezkoan gelditzen.✘



# urrategideko

altzariak & sukaldeak



círculo  
muebles



- Sukaldeak
- Sofak
- Haurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak



## 1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14  
urrategideko@urrategi.eu  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)



# Eskubide guztiak, guztionak?

**G**izaki orok du inongo be-  
reizketarik eta bidegabeko murrizketarik  
gabe botoa eman eta hauteskundeetan hau-  
tatua izateko eskubidea. Hori dio 1976ko  
martxoaren 23an indarrean jarri zen Eskubi-  
de Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak. Ni  
baino urte gehiago ditu itun horrek, baina  
oraindik ere eskubideak urratzen segitzen  
dute; bai Kurdistanen, eta baita Euskal He-  
rrian ere.

Apirilaren erdi aldera manifestazio eta isti-  
luak izan ziren ekainaren 12ko hauteskunde-  
etara 12 kurduri ez aurkezteko betoa ezarri  
zietelako. Milaka laguneko manifestazioak  
egin ziren eguna joan eta eguna etorri Tur-  
kian.

Maiatzaren 22an, 40.000 lagun eta gai-  
nontzekoak joango gara bozkatzera Euskal  
Herrian, edo horretarako aukera (eta eskubi-  
dea) izango dugu, behintzat. Bozkatzeko au-  
kera bai, hautatua izateko aukerarik ez,  
ordea, guztiok. Gurea bezalako herrialde 'de-  
mokratiko' batean, 40.000 lagun inguru ziki-  
nak dira. Lehen, txikiak edo handiak ginen;  
emakumeak edo gizonezkoak; zuriak, beltzak  
edo horiak... eta orain, pertsona zikinak eta  
garbiak ere bereizten dira gurean. Eskubide  
zibil eta politikoen printzipioak urratuak dituz-  
tenak dira zikinak. Ez urratzen dizkietenak,  
urratuak dituztenak baizik.

## Zaila egiten zait...

Zail egiten zait pertsona zikin eta garbien ar-  
teko bereizketa egitea. Zail egiten zait zerren-  
den inpugnazioaz hitz egitea, eta zein zerren-  
dari bakarrik begiratzen dioten ikustea, eta  
begirada eta lupa horien koherentzia uler-  
tzea.

Zail egiten zait ulertzea hainbaten iragana  
nola ahanzten (edo ezkututzen) den ikustea,  
eta beste batzuei zenbat aldiz gogorarazten  
zaien egindakoa; beraiek egindakoa, aitak,  
amak edo anai-arreba zein aitona-amonek  
egindakoa.



ihintza agirretxe

||| Lupa batek, bik edo hiruk  
ezin digute ilusioa  
zapuztu, bidea moztu  
edo oztopatu

Zail egiten zait norberak egin gabeko hain-  
bat gauzengatik norbait juzgatzea; familiako-  
ek egindakoa ere heredatu egiten da gurean.

Zail egiten zait ulertzea orain dela 30 urte  
legearen barruan hautagai izan zena ezin  
dela aurtengo hauteskundeetara aurkeztu.  
Eta are zailago egiten zait ulertzea ustelkeria  
kasuetan nahastuta dabiltzanei begiratu ere  
ez egitea.

Iragana beti bueltatzen omen da. Aldea  
dago, ordea, batzuen zein ezkutuan buelta-  
tzen den, eta besteena nola aireratzen den,  
eta zenbat joan-etorriko txarteltxo dituen.  
Atzokoan ezin da ezer aldatu, baina biharko-  
an bai. Biharkoa norberak, banaka, zein guk  
eraiki behar dugu. Etorkizuna eraikitzeko  
dago, sortzeko. Egin dezagun bidea, hitz egi-  
nez, adostuz eta eroriz eta jaikiz.

Eroriz ikasten omen da oinez, baina eror-  
tzen bagara, eror gaitezen gorantz. Segi de-  
zagun ereiten etorkizunean jaso nahi dugu-  
na; izan nahi duguna, sortu nahi  
duguna. Lupa batek, bik  
edo hiruk ezin digute  
ilusioa zapuztu, bidea  
moztu edo oztopatu.\*





Eibar

**ARTE BATXILERGOA** A eta D ereduetan

Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



Osasun Arreta Ziurtagiria  
duen Euskal Herriko  
lehenengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

**‘zure irribarra zaintzen dugu’**

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)



**JOXE MARI IPARRAGIRRE  
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA**

Sta. Barbara bidea, z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413  
[www.iparragirre.net](http://www.iparragirre.net) - [jmiparragirre@edunet.es](mailto:jmiparragirre@edunet.es)

### ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D



#### LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

#### AURREMATRIKULA:

Ekainaren 1etik 10era (biak barne)

#### MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 4tik 8ra (biak barne)

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Babestu ezazu euskara!

Azala erre ez dadin, garrantzitsua da eguzkitako krema ematea; era berean, euskara ez galtzeko beharrezkoa da erabiltzea, dendari honek egin moduan. **Uztarrria**

**BEHERA.** Euskarak ez ote du balio artistakeriak egiteko?

Domatzaileak, lehoiak, trapezistak... izan ziren ikuskizuna eskaintzen, apirilean. Zirkua iragartzen zuten kartelak, ordea, gaztelania hutsean zeuden. **Uztarrria\***



Mikel Ayestaran.

## ESANA DAGO

“Agentziek normalean ematen ez duten informazioa ematen saiatzen naiz”

“Ikaragarria izan zen Egipton gizonak eta emakumeak elkarrekin otoitz egiten ikustea”

MIKEL AYESTARAN  
gerra kazetaria

“Urrestilla bezalako ingurune batek sortzen dituen naturarekiko loturak erabatekoak dira”

MIKEL  
URIBETXEBERRIA  
artista urrestildarra







txetxu urbietta

## Aitormena

**A**itortu behar dut oso berandu ezagutu nuela. Txikitan ez goen inor ni futbol zelaitik aterako ninduenik. Nirea futbola zen, buzoiek eta Maiatzeko dominek ez ninduten batere tentatzen.

Aitortu behar dut baita ere, azkoitiar batek erakutsi zidala bera sentitzen eta maitatzen. Zoriontsu izateko askoren beharrik ez dago. Pare bat lagun eta pakea.

Ikusi, egunero ikusten dut baina aspaldian elkarren zuzeneko berririk ez dugu. Eta nago ni, bera nigana etorriko ez denez, nik joan beharko dudala beregana. Eta joango naiz, laster gainera. Eta joaten hasita, sarri sarri joatea espero dut.

Beregana joan naizen aldi baikoitzean, gehiago, sekula santan berriro ere ez naizela itzuliko mila bider pentsatu dut. Baina hain da ederra, hain da zoragarria, beregana iritsitakoan aurreko aiene (eta mekaue) denak bat-batean uxatzen direla nire kaskotik.

Berandu ezagutu badut ere nire bidelagunari esker, azkoitiarrari esker alegia, gure maitalearen bazter eta zoko ugari ezagutzeko parada izan dut, askok eta askok ezagutzen ez dituztenak. Nire paradisua zerutik gertu dagoen harri bat da. Harri gainean zutik jarri eta nire herri maitea hankapean dut. Alkate berriak ere sentipen bera izango ote du? 22an nagusi denak 29an proba dezala, bidea eta tontorra. Bidean gora botatzen dituen izerdi tantak herritarren eguneroko izerdi tantak dira. Tontorrean sentitzen duen gozamena berak herriri lau urtez eman behar diona.

Ah!!! Eta zuek Erlo ala Xoxote, zein aukeratuko zenukete? Zaila.✘

## IKUSTEKO!



### ▲AZPIAN HARRAPATU GABE, KONTUZ!

San Inazio zaurituta egon zen ospitalearen ondoko etxearen egoera tamalgarria da. Madalena auzoan dago erortzeko arriskuan dagoen eraikina. Argazkian ikusi daiteken moduan teilatua puskatuta du, eta sarrerako atean hiltzatutako kartelak hala dio: errepidearen beste aldetik pasatzeko, erorketa arriskuan egonda ezbeharririk gertatu ez dedin. 📷👉 Ainitze Agirrezabala✘



## APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### Kilometroak

**ETORKIZUNERA SO.** "Kilometroak" antolatzearen helburu nagusia dirua bilzea dela ukatu gabe, antolatzaileek ikastetxe baten eta gizartearen artean izan behar den lotura adierazten digute. Horren lekuko dira mahai-inguruak, "Klik Art" erakusketa... Gaien mamia begiratzuz garbi dago etorkizunari begiratzen diotela eta herritarrei horretaz pentsatu araztea nahi dutela. Benetan pozgarria. Zorionak!



donato unanue



### Galesen ere Korrika

**BIDAIA.** Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI-ko ikasleek Galesera egindako bidaiari argi geratu da ikastetxe batek, aldi berean, bere herriari itsatsita eta munduari irekita egon behar duela. Hunkigarria da ikustea gure seme-alabak beste nazio batekoekin harremanetan ikustea.



### Gernikako akordioa

**BILDU.** Martxoan, herrian, ekinaldi bat baino gehiago izan zen Gernikako akordioa babestu nahirik, bake bidea indartzeko asmoz. Auzitegi Gorenaren erabakiaren berri jakin ondoren nire eta herriko beste askoren gogoak zapuztu dira. Badirudi, geroz eta garbiago dago, askok eta

askok bakerik ez dutela nahi. Badirudi, batzuk xaxaka dabiltzala ekintza negargarriren bat gerta dadin. Eta hori dena, gainera, demokraziaren izenean. Benetan nazkagarria. Ez zinestekoa. Zer egingo du epaitegi konstituzionalak? Beldur naiz...\*

## INKESTA

zer egin duzu  
aste santuko  
oporretan?

 Ainitze Agirrezabala

**JOXEMARI LARRAÑAGA**

jubilatua



“Herria zaintzen geratu naiz. Eguraldia ederki portatu da. Elizara

ez gara asko joaten, baina ostegun santuan eta pazko egunean joatea gustatzen zait. Kanpoan dirua gastatu beharrean bertan gastatu dugu, afari ederrak eginez”.

**KARLOS REKEJO**

jubilatua



“Dirurik ez dugunok badakizu, herria zaintzen geratu

behar. Ez dugu kejarerik, hemen eguraldi ona egin baitu. Zarautzen ibili gara eta bizikletan Aizpurutxora”.

**DEIANE EPELDE**

jubilatua



“Etxezain geratu naiz. Elizkizun luze eta xelebrehoriek ez zaizkit

gustatzen. Txikitan nazkatu ginen majo. Halere, egunpasa ederra egin genuen: Leitzatik eta Iparraldetik barrena”.

**ANA UGARTE**

ikaslea



“Azpeitian pasatu ditut astesantuetako oporrak.

Lagunekin ateratu naiz kalera, eta zinea ikustera ere joan naiz gurasoekin, Urbil merkataritzagunera”.

## Sanagustin kulturgunea

**A**pirileko Azpeitian zer? Udal aldizkariak, martxoaren 3an Udalbatza osoak egindako bilkuran hartutako erabakiaren berri ematen du: “kultur jarduetarako etxearen kudeaketa eta ustiapenerako kontratazioa, lehiaketa irekiaren bidez”. Ondoko oharrean osatzen du informazioa esanaz kudeaketari buruzko deialdia ateratu zuela, eta dagoeneko jaso direla proposamen guztiak.

Esan beharrik ez dago kultur arloan zer garrantzi handikoa den egitasmo hau gure herri eta inguruetarako, kultura indartzeko, bere ikuspuntu zabaletik, musika kontzertuak, euskara, bertsoak, olerkiak, antzerkiak, hitzaldiak, mahai inguruak, erakusketak jaialdiak, zine forumak, haur eta nerabeentzat ipuin, idazte lehiaketa eta abar.

Kudeatzaileek kontutan hartu beharko dute denentzat irekia izan behar duela, zabala, aurreiritzi guztien gainetik anitza, eta partaideek beren aldetik errespetuz onartu ezarritako baldintzak eta arauak.



**HIGINIO OARTZABAL**

Gunea leku aproposagoan egoterik ez dago. Herriaren erdi-erdian, enparantza nagusiaren alboan, denok zailtasunik gabe iristeko moduan. Lokala ederra, ondo birgaitu eta berriztatua, akustika zoragarria daukana. Ez daukagu aitzakiarik gune horri ateratu behar zaion zuku eta kultur emaria ez ateratzeko. Bestela, berriz ere gure erosotasun eta axolagabetasuna izango da horren erantzule.

Lau hilabete luze dira emanaldiak eta jardunak egiten ari direla gune horretan, eta iada 50 ekintza gauzatu dira bertan, eta jendeak orokorrean oso ongi erantzun du, bertaratzeko joera hartzen ari da, eta 300 jarlekuko aforo ez da nahikoa zenbaitetan, eta 460ra gehitu nahi da.

Gure herri honetan 50tik gora elkarte gastronomiko ongi funtzionatzen ari direnak edukita (urteoro bi edo hiru berrik gehitzen dute kopuru hori), ez ote gara gai izango erronka honi behar bezala erantzuteko?\*

**galdetzen hasita, noizko Azpeitian emakume bat alderdi nagusietako batean alkatetzarako hautagai?**

 **Uztarria**

## Hemerotekan bila

**P**ribilegio bat behar luke aldizkari batean edo zeri buruz idazteko orri erdi bat izateak, baina niri asko kostatzen zait bi hilean behin edukitzen dudana tarte hau betetzea. Zeri buruz idatzi, nola hasi, nola segi. Uztarria.com-era jo dut oraingoan ere gai bila. Hauteskundeak: ez naute inspiratzen, ez naiz bada ni hasiko pronostikoak egiten. Korrika: emozionatu egiten naizela eta amaierako ekitaldian malkoak ateratu zitzaizkidala aitortu behar al dut, hau lotsa.

Izen-abizenekin eta argazkiarekin doa testua, eta halakoetan gehiago neurtzen ditugu hitzak. Antza, ez naiz hori gertatzen zaion bakarra. Albiste zaharregotara atzera egin eta 40 erantzun dituen bat topatu dut. Ia denak ezkutuko izenekin daude sinatuta, txikia izeneko batena zen bat, erantzun izenarekin zegoen bestea, martxil, oba, zelailuze... Hori bai, haiek idatzizako testuetan pertsona konkretuei egiten zaie erreferentzia. Harria bota eta eskua ezkutu, ausartak gara gero anonimotasunean.



**MIREN GARATE**


Are atzerago egin eta adibide egokiagoa aurkitu dut. Amaia Azkueren hilketa. Ez daude iruzkin asko, eta daudenak nahiko onargarriak esango nuke. Kallean, ordea, ederki ireki dugu ahoa, eta zeresanik ez komunikabide batzuek. Azpeitian gehien saltzen den egunkariak orriak eskaini dizkio kontuari eta bideo bat ere egin du haren azkenengo orduak irudikatuz. Kafetegiko zerbitzariari kafesnea edo ebanika hartu zuen galdetzeko odol hotza ere eduki du kazetariak.

Bakoitzak bere iritzia izango du, baina iruditzen zait euskaraz aritzen diren hedabideek, orokorrean, errespetu gehiagorekin jorratzen dituztela halako gaiak. Horrekin ez dut esan nahi euskaldunoi interes gutxiago pizten digutenik, alderantziz baizik, zer baitengatik gara Tele5 katearen ikusle nagusiak. Jendeak morboa eskatzen du, eta morboak saldu egiten du, argi dago, baina komunikabideek ase egin behar dute eskaera hori?\*



andoni salegi

aaaaah!!  
batasuno bat, ez ikutu!!





## Pintadak

**D**onostiako pareta batean Banksy-rena omen zen marrazkia agertu, eta eztabaida piztu da, ezabatu behar ote den, artea zer den... Dagoeneko ezabatuta dauden, baina nire paisaietatik ezabatu ez diren pintada batzuk aitatu nahi ditut gaurkoan. Izan ere, herri honen historia eta istorioak daude pintada eta marrazki horietan. Pintada horiek bereziak dira niretzat, eta aurretik pasatzeran hainbat galdera etortzen zitzaizkidan burura. Artearen eginkizuna ez al da galderak egitea?

Aurrena. Aizpurutxo pasatu eta berehala bada Urolara jaisten den errekatxo bat bidea-

ren eskubi aldean, eta ondoan txabola bat du. Oraindik orain arte han egon da lau bat metro kuadroko Euskadiko Ezkerraren sinboloa, partidua desegin eta 15 bat urtean behintzat bai. Nork pintatu ote zuen? Bizi ote da? Gaur egun Euskadiko ote da? Ezker ote da? Zer pentsatzen ote zuen handik pasatzen zenean?

Bigarrena. Zarautzen, San Pelaiotik hondartza alderako oinezkoen pasabidean, bazen pintada bat, orain 25 bat urte gutxienegindakoa. 'Fraga = Braga (sucia)' zioen, eta azken hitz hori beste kolore batez zegoen, gerora erantsita balego bezala. Gerora,



### ■■■■■■■■■■eñaut frantzesena■■■■■■■■■■

borratu egin zuten, baina ondo fijatuz gero, oraindik ere irakurri daiteke. Zergatik eta noiz idatzi ote zuen? 1976ko martxoaren 3a ote zuen gogoan? Handik pasatzen denean gogoratzen ote da pintatu zuen egunaz?

Hirugarrena. Ez zen zehazki pintada bat, baina irribarre bat kentzen zion irakurtzen zuenari behintzat. Artetxenekoa aurrean bazen trafiko seinale bat,

9 PEREGIL

26 TOLOSA

zioena. Zeinek idatzi ote zuen? Noiz? Zein momentutan bururatu ote zitzaion? Gustura geratu ote zen egindakoarekin?\*

Bozkatu



**IREKI  
BIDEA  
EZKERRARI**

**BAKEARI  
EUSKARARI  
EUSKAL HERRIARI  
POLITIKARI**

# Sokatira indartsua

**Azpeitian hauteskunde borroka EAJren eta Ezker Abertzalearen artekoa izan da, eta aurrekariak ikusirik norgehiagoka indartsua izango da.** 📌 Eider Alkorta

**H**auteskundeen atarian gaude berriro ere, eta berriro diot 15 egunetako kanpainak ofizialek gehiago duelako errealitatek baino. Hauteskunde kanpaina hauteskundeak burutu eta biharamunean berriro martxan jartzen den makineria zela esan zuenak gezur handirik ez zuen bota. Espainiako Estatu osoan udal hauteskundeak dira, erkidego gehienetan autonomikoak ere (Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia, Kataluña eta Andaluzia salbu). Hego Euskal Herrian, udal ordezkariak aukeratuko dira, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban Batzar Nagusiak eta Nafarroan, aldiz, Legebiltzarra.

Hauteskunde estrategia eta kanpainak tokian tokiko beharrezanetara moldatuko dituzte alderdietako aparatuek. Jatunen behar eta gustuetara egokitutako platerak, hautesle berriak erakarri nahian. Estatu mailan burutuko diren udal eta autonomietako hauteskunde emaitzak hauteskunde orokorren aurrekari bat izan daitezke. Hala saldu nahiko du Alderdi Popularrak behinik behin, aldaketaren hasiera direla udal eta autonomia hauteskundeak. Eta botu intentzioari kasu egiten badio-

uztarriak  
Eider ALKORTA  
politoLogoari  
eskatu dio Azpeitiko  
hauteskunde  
atariko  
argazkia

gu dirudi Espainian alderdi sozialistak orain arte zituen zenbait gotorleku gal ditzakeela.

Hego Euskal Herrian badugu non aukeratu, eta zaila plater nagusia zein den aukeratzeari. Denetarik entzun eta ikusi dugu, estrategia aldaketak eta lagun berriak, hauteskundeek begira ezezik, epe luzearako apustuak direla argudiatuz. Baina berriro hauteskunde atarian Ezker Abertzale historikoaren legalizazio ezaren mehatxuak agerian utzi du ez dugun normalizazio politikoa. Lehenengo

Sorturen legalizazio eza, eta ondoren Auzitegi Gorenak Bilduren zerrenda guztiak balio gabetu zituen. Kanpaina hasi eta hamar minutura, ordea, Auzitegi Konstituzionalak argi berdea eman die Bilduren zerrendei eta azken zortzi urteetan ez bezala Ezker Abertzale historikoak ordezkari itzazu instituzionala izango du.

Nafarroari dagokionean, Nafarroa Bairen hausteak 2007ko hauteskundeetan ikusi ahal izan genuen alternatiba bateratuarekin bukatu du. Oraingoan UPN-PSNri aurre egiteko bloke nagusirik ez dago, eta ikusiko dugu kanpainan bakarka edota lagun berriekin lehiatzeak zer onura dakarren eta zeinentzako. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Batzar Nagusien eraketak ere emango du bere jokoa eta hauteskunde ondorengo akordioek kolore anitzak izan ditzakete. Lurralde Historikoak politikoki eta soziologikoki nahiko ezberdinak izaki, batean onar daitezkeen lagunak bestean etsai izan daitezke. Hegemonia eza nonbaiten agerikoa bada Gipuzkoa da. 2007ko hauteskundeetan (ANVren siglekin) Ezker Abertzalearen zerrendarik "ez zen





pasa", Bizkaia eta Arabako zenbait barrutietan ez bezala. Kalkulagailuan 0 tokatuko zen Gipuzkoa Batzar Nagusietarako, Udaletarako, aldiz, zerrenda batzuk bai eta beste batzuk ez. Baina oraingoan Bilduren bidez Ezker Abertzaleak ordezkariak izan ditzake Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta euren botuak erabakiorrak bilaka daitezke Ahaldu Nagusi bat ala bestea aukeratzeko orduan. Azkenean Bilduri aurkezten uzten badiote, emaitzek gailentasan nagusirik gabeko hiruki bat erakutsiko digute, EAJ, Bildu eta PSEek osaturikoa. Eta hortaz, aktiboki (alde edo kontra bozkatzuz) edo pasiboki (abstenituz), berea ez den Ahaldu Nagusiaren izendapena bermatu beharko du alderdiren batek. Debaldeko botu inozenteak ez dira izanen seguruenik eta izendapenaren uneko poztasuna pasa ondoren gehiengorik gabeko gobernabilitate konplexu baten aurrean koka daiteke.

### Zaharra berri, alkatea gizonezkoa

Eta Azpeitian zer? Gure herrian PP-PSE tandemari aurre egiteko estrategia tokiz kanpo egon da beti. Hauteskunde borroka, eta alderdi txikiak gutxietsi gabe, EAJ eta Ezker Abertzalearen artekoa izan da, eta aurrekariak ikusirik sokatira indartsua izango da maiatzekoa. 2007an lehen aldiz Ezker Abertzaleak lortu zuen alkatetza, baina hauteskun-

de iraulketa bat baino, EAren jarrera hartze berria izan zen aldaketa bermatu zuena. Ondoren gertaturikoek ez dakit sokatirako indar korrelazioa gehiegi baldintzatuko duen. Inaxio Uriaren erahilketak eta ondorengo mozio zentsurak gaiztotu egin zituen lehendik ere oso ahulak ziren hartu emanak.

2011n aurpegi berri batzuk ditugu zerrendetan, batzuk halabeharrez, eta beste batzuk estrategia aldatuz. Botu emaitzak nahiko fidelak izan ohi dira eta oso gutxi aldatzen dute botua hauteskunde batzuetatik bestetara. Udal hauteskundearen berezitasunetako bat, normalean hautagaiak ezagutzen ditugunarena da eta botu mugimendu gehiago eman daiteke hautagaiak gustuko ditugun ala ezaren arabera. Dena den, gurean hautesleek ez diete bozka hautagaiari ematen alderdi, plataforma edo koalizioei baizik, zerrendak itxiak baitira eta erostekotan pakete osoa hartzera behartuak dira. Badirudi gainera Azpeitiko zerrendetako zenbait kide harri duraz eta ilusio gehiegi gabe hartu dituztela botu emaitzek. Aurreko legealdiko astinduak hor darraite eta besteak beste, Azpeitiko EAJ, EA eta Leku Ederren arteko balizko akordioa egikaritzeak zenbait edo zenbaiten kontraesanak agerian utz ditzake. Hortaz, galdera bat suertatzen zait: zer mailatan jarraituko dituzte hautesleek alderdi apartuen

kontsignak? Abstentzio datuek erakutsi dezakete eraginik izan duen zerrendakide batzuen presentziak edota alderdiekiko fidelotasuna gailentzen den. Kontuan izan beharrezkoa ere Hamaika Bat-en presentzia, EA-k 1999tik galdu dituen bozken portzentaia esanguratsu bat jaso baidezake.

Aurreko hauteskundeetako emaitzak ikusirik badakigu eserleku batek Udalaren kolorea alda dezakeela. Ondorioz, denak helburu berdinarekin helduko diote hauteskunde lehiari, gobernabilitate sendo bat izateko beharrezko den gehiengo lortzea. Hamaika Batek EAJ, eta Aralarrek Bildu babestea lojiko litzateke sokatira honetan. Azken bi urteetan desgobernu batean kokatu da Azpeitia, oposizioa batuz gobernuak baino botu gehiago dituenean, negozioaziorik ezean, blokeoa bilakatzen da ildo nagusi. Ezin dugu ahaztu Azpeitia bezalako herrien idiosinkrasia, gurean lehiari dagoena euskal abertzale eta espainiar abertzaleen arteko borrokatik urrun dago. Nazionalismo edota abertzalearen hegemonia nork bereganatzen duen jokatzeko da Azpeitin, nire herri eredu ala zurea. Maiatzaren 22ko gauean ikusiko dugu zein gailendu den baina bien artean alde nabarmenik egongo ez denaren uste apala dut. Gertatzen dena gerta, arlo batzutan zaharra berri, alkatea gizonezkoa izango da.✳



# JESUS LARRAÑAGA

EAJren alkategaia

## “Lau urte oso tristeak izan dira herriarentzat”

Aurrenekoz da alkategai, baina Udala ez zaio inolaz ere arrotz. EAJk bere boto-emaile guztiak beharko dituela dio, “guk irabaztea nahi badute”. 📧📺 Mailo Oiarzabal

**P**ako *Kinttela*-ren semea” dela dio, jatorriaz harro. EHUN ari da gaur egun, baina jarduera asko probatutakoa da; tartean, EAJren zinegotzi izan zen, 1995-1999 legealdian. Gasteizko lantokitik nahi baino beranduago iristen dela-eta kostatu da elkarrizketarako hitzordua lotzea, baina gero luze eta zabal erantzun du.

**Aurreko esperientziarekin, kostatu egin al zaizu alkatezarako aurkeztea, ala ez?**

Alkategai izatea kontu boluntarioa izan behar da. Ni gustura aurkeztu naiz. Gainera, oso talde ona dugu eta uste dut lan polita egin dezakela EAJk Azpeitian.

**Azken legealdia zaila eta oso gorabeheratsua izan da**

**Udalean. Zer balorazio egingen duzue EAJn?**

Lehenik eta behin esan behar dena da hauteskundeak EAJk irabazi zituela, argi eta garbi. Beste kontu bat da, legearen arabera, beste gehiengo bat sortzea posible zela eta sortu egin zen; niretzako horrek zilegitasun osoa du. Hainbeste denbora alkatetzan egon eta gero, tristezia egon zen, baina uste dut azkar errekuperatu zirela. Nik uste dut EAJk trantsizio nahiko ona egin zuela, eta Julianek [Eizmendi] nahiko lan txukuna egin zuela iruditzen zait. Gero, Inazio Uriaren hilketarekin, oso egun tristeak izan ziren. Azpeitiar bat horrela erail eta gero, Udalean jendea isilik geratzea... Niretzako, udal hark ez zeukan zilegi-

### |||DATUAK|||||||

|||**Jaio.** 1959ko ekainak 2.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**


Ikasketaz ingeniari, gaur egun Algoritmo Matematikoen irakasle da EHUn.



tasunik jarraitzeko; zilegitasun morala esan nahi dut, demokratikoa bai. Julianek atzera alkatetza hartu zuenean, EAJk lagunduta —eta hori esan egin behar da, eta eskerrak hala izan zen—, blokeo bi urte izan dira. Azpeitian aurrera eraman diren ideiak eta politikak ez dira izan EAJrenak. Gehiengo bat sortuta dago, 8-9, eta horrek Udala eraman duen lekutik eraman du. Niretzako, Azpeitiar atzerapauso nabarmena eman du; lau urte oso tristeak izan dira herriarentzako.

**Blokeo hori gainditzeko borondatea bi aldeetan eman beharko litzateke, ezta?**

Legealdia hasi zenean hor ja bazegeon talde bat osatuta, akordio bat, alkatetza bereganatzeko.



Hori gero oposiziora trasladatu da, eta berdin jarraitu dute.

**EAJri ez al zaio falta izan gerri-joko pixkat, gobernuan gutxiengoan egonda?**

Nik alderdian jaso dudana da aukera horiek egon direla, transbertsalitate bat sortzeko, baina garbi-garbi Udala bi bloketan hautsita egon dela, eta ez da posible izan. Hor bi eredu daude, eta orain ere ideia hau errepikatzen doa. Bildu orain Udalean dagoen bloke berdina da, ez gaitzen engainatu.

**Aralar ez dago hor.**

Baina berdin da. Azken finean EA, ezker abertzalea eta Aralar daude hor. Nahiko genuke malgutasun gehiago egotea; ez gara 'bitxo arraroak'. Pentsatzen dut hor zeozer egitea egongo dela.

**Gehiengo osoa eta elkarbizitza berregitea aipatu dituzue. Ez al dira kontzeptu kontraesankorrak?**

Ez, ez dira kontraesankorrak. Gehiengo absolutuarena esan dugu, aurreko lau urteetako es-

perientziarengatik. Baina neuk pentsatzen dut hori gabe ere zeozer egitea badagoela. Gure eredu aurrera ateratzeko eta elkarbizitarako, nik uste dut transbertsalitatea egon behar dela eta gu hori egiteko gai izan behar gara. Ez dakigu lortuko al dugun, momentu honetan nahiko zail ikusten dugu. Azken finean, hemen bide daude: bat EAJk planteatzen duen eredu, eta bestea ezker abertzalearena. Azpeitian ezagutu dugu zer ematen duen azken eredu horrek.

**Zer proiektu du EAJk Azpeitirako?**

Azpeitia bizitzeko eta elkarbizitzeko herri bat da; niretzat aurreneko pausoa hori da. Aitortzen dut ezker abertzaleak eman dituen pausoekin, aro berri batean sartu gara. Baina beraiek ezin dute espero, lehen pasatu den guztia pasatu ez balitz bezala izatea. Guk ez dugu konfrontaziorako herri bat ikusten, bizitzeko herri bat baizik, eta elkarbizitzen jakin beharko dugu atzera berriz, 30 urte hauek pasatu ondoren.

**EArekin Esklabetako eremuaren garapena adostua al duzue?**

Orain dela urte eta erdi hasi ginen hizketan EAKoekin, hala ezin zela jarraitu pentsatuta. Ia laurogei bilera eduki ditugu eta gai honi irtenbidea emateko puntu batera iritsi ginen. Etxebizitza kontuan lehentasuna Gallardo hortik ateratzea da, hori denok ikusten dugu horrela. Baina hori ez dago Udalaren menpe, eraba-

kia enpresak hartu behar du. Gure beldurra zen Azpeitiaren bilakaera osoa enpresa baten gain geratzea. Orduan, alternatibak bilatu ditugu: Gallardok bere plangintzarekin jarraitzen badu, lehentasuna hor egongo da eta Esklabak ez dira hainbeste garatuko; bestela, badaukagu beste eremu bat, Azpeitia hazteko.

**Bildu hauteskundeetan izango da, azkenean.**

Bai, eta aukera guztiak ordekatu egongo dira. Beraz, Bilduri aitzakiak bukatu zaizkio; biktimismoak alde batera utzi eta bada garaia, programaz hitz egin dezaten. Ez dira nire gustukoak, herriaren beste ikuspegi bat daukate eta ni ez nago ikuspegi horrekin ados, baina azaldu egin behar dira, herriak esan dezan zein bide hartu behar den.

**Zergatik eman behar diote botoa azpeitiarrek EAJri?**

Bizi eta elkarbizitzeko herri bat nahi dugu, bizitzeko modu lasai bat. Horretan sinesten dugu. Abertzaletasunaren biderik jatorrena instituzionala dela uste dut, ez konfrontazioarena. Guk jendearen borondatea irabaztea nahi dugu, horregatik ez dugu indarkerian sinesten. Oso kurioso da. Ezker abertzaleak estrategia bat erabili du orain dela 30 urtetik, eta orain ekartzen du bere 'nobedade' hau. EAJ orain dela 30 urte sartu zen bide horretan, hauek daude 30 urte atzeratuta. Gure eredu nondik dijoan garbia da, beraiena oraindik ez dakigu.

**Zer emaitza espero dituzue Azpeitian?**

Gure boto-emaile guztiek etorri beharko dute botoa ematera, guk irabaztea nahi badute. Bildu oso indartsu dago eta lehen ere galdu genuen. Orain dela lau urte gehiengo lortu genuen, baina hala ere ez genuen alkatetza lortu, eta orain berdina gertatzeko arriskua dago. Gure boto-emaileak etortzen ez badira, ez dugu alkatetzarik lortuko; bestela, bai. Nik horrela ikusten dut kontua.\*

“Hemen bi bide daude, EAJrena eta ezker abertzalearena”

“Hauek [ezker abertzaleaz] daude 30 urte atzeratuta”



# ENEKO ETXEBERRIA

Bilduren alkategaia

## “Jendeak gurekin sinestea nahi du”

Azken urteetako “gatazka konpondu, zauriak itxi eta beste gizarte mota bat eraikitze aro berri” baten aurrean gaudela adierazi du. 📝👁️ Ainitze Agirrezabala

**O**rain arte politika beste herritar arrunt batek bezala bizi izan duela dio, baina “urrats bat aurrera eman, konpromisoa hartu” eta koalizio berriaren zerrendaburu aurkeztu da. **Bildu izango da, azkenean, bozetan.**

Auzitegi Konstituzionalaren erabakiak argi eta garbi uzten du beste aro bat irekitzen dela. Konstituzionalak egoera guztiz antidemokratiko bat salbatu du. Gure koalizioak azkeneko segunduan lortu du hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea izatea. Bestela, eskandalu bat izango zen maila guztietan, Europa mailan ere bai. Hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea lortu nahian indar asko galdu dugu,

baina hemendik aurrera indar guztiak jarriko ditugu gure proiektu politikoa zabaltzeko eta sustatzeko.

**Politikan sartu eta zerrendaburu.**

Iruditzen zait garai berri batzuen hasieran gaudela eta horregatik egin dugu indarrak metatzearen aldeko apostua. Iritsi da garaia azken urteetako gatazka konpontzeko, zauriak ixteko eta beste gizarte mota bat eraikitzeko.

**Zergatik Bildu?**

Tresna egokia iruditzen zait orain arte sakabanatuta edo banaka ibili diren indar aurrerakoiak bildu, aldaketa politiko-sozial eraginkor bat sortu eta Azpeitia berri bat osatzeko. Balore aldaketa sakon bat egon behar du. Koalizio

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1971ko martxoak 11.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**


Abokatua eta zuzenbideko irakaslea, EHU.



honen apustua oso garbia da: gizarte berri horrek aurrerakoia izan behar du, elkartasunean oinarritua eta burujabetzaren aldekoa.

**Bilduk bozetan egoteko izandako oztopen aurrean zer balorazio egiten duzu?**

Zuzenbideko irakaslea naiz eta harrigarria da erakusten duguna praktikan nola ez den aplikatzen ikustea. Guk erakusten dugu hiru botere daudela: betearazlea, judiziala eta legegilea. Kasu honean, harrigarria da botere bete-arazleak nola duen indarra, hain juxtu, ertzaintzaren, guardia zibilaren eta polizia nazionalaren bidez, edozein lista, edozein frogaz sortzeko. Eta, botere judizialak, azkenean, botere exekutiboaren inpultso politiko handi ba-



tekin funtzionatzen du, independentziarik gabe. Botere judizialak horrela funtzionatzen duen adierazgarria da oposizio alderdiek exijitzea, ez eskatzea, exijitzea, ilegalizazioa. Zuzenbideko estatua paperean bakarrik dago. Koalizioko hautagai guztiok dekalogo etikoa izenpetu dugu, bide politiko eta demokratiko hutsen alde eta indarkeria ororen aurka. Eta, hori esanda ere terroristak gara? **Nolako lana egin nahiko zenuke?**

Planteatzen dugun lana egiteko

modua partehartzailea, irekia eta gardena da. Parte hartzea bultzatzeko arloetako mahaiak erreku-peratu nahiko genituzke; auzoetan batzarrak egin; arazo konkretu bat dagoenean, kaltetuak diren herritarrekin batzarrak; aurrekontu partehartzaileak... Gai garrantzitsuen inguruan herri galdeketa bat ere bultzatu nahiko genuke.

**Bilduren zerranda osatzeko nola ibili zarete Azpeitian?**

Estatuak dituen elementu guztiekin zelatatuak sentitzen gara, eta egoera horretan inor gutxik du

gogoia horrelako konpromisoak hartzeko. Horrek adierazten du Bildun parte hartzen dugun guztion konpromisoa eta ilusioa Azpeitiko herriarekin eta herritar guztiekin. Zerrenda honetan gaitasuna dago, bai politikoa, bai teknikoa.

**Hainbat gai estrategikotan zuen koalizioko kideek ikuspuntu desberdinak agertu dituzte.**

Ezin dugu ezkutatu Bilduren baitan irizpide diferentek daudela Plan Orokorren inguruan. Irizpide diferentek daude, batez ere, puntu batean, Loiolako eremuaren inguruan. Koalizioan oso argi dugu azken zortzi urteetan sortutako gatazka urbanistikoa konpondu egin behar duela Plan Orokorra, eta akordioa estrategikoa denez alderdi guztien irizpideak batzea lortu beharko genuke. Halere, koalizioan irizpide diferentek egonda, gutxienean akordio bat lortu dugu. Esklabetatik Jesusmariatara berdegune handi eta zabal bat aurreikusten dugu. Baina horrek ez du esan nahi eremuko zati txiki batean, Esklabak eraikinaren atzekalde horretan, etxeak ezin daitezkeenik egin. Horrela, neurri handi batean, ingurunea babesten dugu, ekipamenduak sortzen ditugu eta babes ofizialeko etxebizitzak egitearen aukera posibilitatzen. Nolanahi ere, Plan Orokorren inguruan lehenengo gauza esan behar dugu, kronologikoki guretzat Corrugadosen gaiak duela lehentasuna.

“zerrenda honetan gaitasuna dago, bai politikoa, bai teknikoa”

“helburua ez da gehiengo osoarekin gure proiektua inposatzea”

**Kontu horretan zein da zuen helburua?**

Bi ikuspuntu estrategiko lotu beharko genituzke. Batetik, guretzat estrategikoa da altzairutegia herrian geratzea, lanpostuei eusteko; baina aldi berean estrategikoa deritzogu altzairutegia herri erditik kentzea. Uste dugu hori lortu daitekeela, altzairutegia Lasako eremura bideratuta, eta Corrugadosen hor utziko duen espazio berria Azpeitiarentzat hazkundera printzipala izan behar du.

**Zein dira zuen programan lehentasunak?**

Eredu ekonomiko berri eta sozialago baten aldeko apostua egitea da gure helburua. Industriaren aldeko apostua egiten dugu, Azpeitiko motore ekonomikoa industria delako. Horretarako berrikuntza eta ikerketa sustatuko ditugu. Larrin industrialdean ikerketa zentro bat sortu nahiko genuke. Baita eskualdeak behar duen formazio profesionaleko zentroa ere. Apostu sendoa egin behar dugu gizarte zerbitzuen alde eta etxebizitza politikari dagokionean, alokairu sozialaren alde. Eredu guztiz kritikagarria dugu, eta balore aldaketa bat eman eta beste gizarte eredu bat egiteko gauza izan behar dugu.

**Aurtengo hauteskundeak nola ikusten dituzu?**

Gure helburua ez da gehiengo absolutuarekin gure proiektua azpeitiarrei inposatzea. Alderdi politiko guztiok elkarlanean egin beharko dugu aurrera. Gure koalizioa aurretik elkarlanean ari da, eta garai berri honetan guztion partehartzearekin eta elkarlanean, ahal bada erabaki guztiak adostasunez hartzea eskaintzen dugu.

**Zergatik eman behar zaio botoa Bilduri?**

Azpeitiak aurrerapauso handi bat eman behar du, eta uste dugu hori egiteko aukera eta gaitasuna, juxtu, indar aurrerakoiak baten dituen Bildu bezalako koalizio batek duela. Jendeak gurekin sinestea nahi dugu.\*



# JUAN KARLOS ARELLANO

Aralarren alkategaia

## “EZ goaz gero jan ezin Litekeen ezer saltzera”

Esaten dutena “konplitzeko gai izan” eta “hankak lurrean” dituztelako, boto-emaileak Aralar alderdia bozkatzera deitu ditu. 📧📍 Ainitze Agirrezabala

**2**007ko hauteskundeetara aurkeztu zen aurreneko; politikan sartu, eta zerrendaburu. Orduan, zinegotzi bat lortu zuten, eta bidelagunik gabe aurrera bakarrik egin beharra “zaila eta neketsua” izan dela adierazi du. Dudarik ez du hauteskunde hauetan zinegotzi bat baino gehiago lortuko dituztela.

**Bukatzearen legealdia zer balorazio egiten duzu?**

EAJK, nolabait esateko, bere txiringittoa zuen eta gure helburua zen erakustea beste modu batera ulertzen dugula politika. Aukera izan genuen gobernu bat osatzeko, eta iruditzen zait egon ginen garaian lanak oso ondo egin zirela, egitura eta izaera aldetik gauzak aldatu zirela. Nahiz eta betiko-

ak ez egon, honek funtzionatu zezakeela erakutsi genuen.

**Gobernu eta oposizioa, biak probatu dituzu.**

Bai, eta eskarmentua hartzeko asko erakusten du horrek. Gehiengo batekin gobernuan zaudela seguruago sentitzen zara. Oposizioan ez zaude agintzen, kezka gehiago duzu. Azkenean, gobernatzen duena gobernu da, eta horrek ematen die gauzei azkartasuna.

**Zinegotzi bakarria izateak zer alderdi on eta zer txar ditu?**

Helburu batzuk markatzen dituzu eta saiatu behar duzu horietara ahalik eta txukunena heltzen, eta bakarrik egonda zaila ez, oso zaila izan da. Fisikoki nekagarria

### |||DATUAK|||||

|||Jaio. 1962ko uztailak 1.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi tokia. Azpeitia. |||Lanbidea.

Lanbide Heziketako irakaslea.



da. Alderdi on bat, Azpeitiko udal txearren berri nik baino hobeto beste inork ez duela jakingo. Komisio denetan nago.

**Berriz hautagai aurkezteko zalantzak izan dituzula adierazi izan duzu. Zerrek bultzatu zaitu berriz aurkeztera?**

Urte gogorrak izan dira. Pasatutako gauza horiek guztiakin nolabaiteko zama duzu. Nik jakingo banu datozen lau urteetan horrelako zerbait errepikatuko litzatekeela, iruditzen zait eskubidea dudala esateko honaino egin dut, hemendik aurrera beste norbaitek hartu dezala.

**Errepikatu, zer?**

Inaxio Uriaren hilketari izan zenean, ez genuen espero inondik inora



horrelako zerbait gertatzea. Gobernuan sartu eta esaten dute: 'ez, ez da gertatuko ezer'. Eta gertatu egiten da. Eta, esaten duzu: 'txist! engainatzera beste leku batera joan'. Horrek asko baldintzitzen du. Nire inguruan badago jendea aurpegia emango lukeena, baina beldurreratik ez dena ausartzen. Jendeak ulertu behar du geure bizimodua dugula, baina esparru honetan sartzea badutela, gauzak egin eta laguntzeko. Hortik zihoan gehienbat nire zalantza, besteen zalantzen

islada izan zedin. Enpatia hori eduki behar dut besteekiko, besteek ere nirekiko izan dezaten.

**Zer helburu bete dituzue, eta zein dituzue betetzeko?**

Gure helburua alokairuko etxebizitza sozialak lehenestea da, eta Agirreneko horretan egitea lortu da, behintzat. Orain Plan Orokorrekin gabilta. Hankak lurtean jarrita gaur egun ezinezkoa da eskuartearen dugun Plan Orokor honetan ez dakit zenbat etxebizitza egitea planteatzea. Zeinentzat? Etxe hutsak edukitzeko? Gaur

egun etxe hutsak, kopuru erreala, 200etik 300era ditugu. Etxe berriak egin dituzte han eta hemen eta ezin dira saldu, inondik inora. EA EAJrekin doa Plan Orokorra aurrera eramatera eta Munorekin adostu dute Esklabetatik Aranera bitartean etxeak egitea, Plan Orokorra onartzen bada. Eta, EA eta ezker abertzale tradizionala elkar-tzea Plan Orokorra dagoela... Nork ulertu behar du hori? Nik garbi dut Esklabetako eremu horretan moratoria eskatu behar dela. Plan Orokorra berraztertu behar da, eta Amue eremuari eman lehentasuna.

**Zer asmo edo proposamen berri dituzue hauteskunde hauetarako?**

Gu ez goaz gero jan ezin litekeen ezer saltzera. Hankak lurtean beti. Gure helburua sekula ez da izan monumentu bat edo etxe multzo bat egitea. Hamaika arlo daude udalean eta guztietarako dugu zeozer. Garbi dago helburu batzuk jarri behar dituzula, baina malgutasun batekin, inongo obsesiorik gabe. Zaila da, eta nik beti esaten dut ezin dela pasatu txuritik beltzera egun batetik bestera. Denbora behar da; jendea konbentzitzen joan behar duzu. Herritarrei parte hartzeko bideak ere jarri behar zaizkie, eta jendearen nahiei bideragarritasuna eman.

**Bildu hauteskundeetan izango da, azkenean.**

Aspaldiko partez badirudi aukera guztiak edo gehientsuenak behintzat herritarren esku egon-

go direla, nahiz eta pixkat baldintzaturata egon. Ideia guztiek plaza-ratzeko aukera eduki behar dute. Berri pozgarria da. Finean, amets gaizto bat izan dugu denok eta badirudi zerbait argitzen ari dela eta esnatutakoan beste inguru bat ari gara ikusten, beste errealtate bat, eta pixkanaka aldatzen ari da.

**Aurtengo hauteskundeak nola ikusten dituzue?**

Batzuk —erdiak baino gehiago— berriz ere itsu-itsuan joango dira beren alderdiak esaten duenera. EAJk hemen badu bere esparru bat eta horri eutsiko dio, baina gehiengo ez du lortuko. Niretzako EAJk aurkeztu duen hautagaia ez da egokiena. Aralarrek sendotasun bat badu eta zinegotzi bat baino gehiago lortuko ditugu. Hori seguru.

**Bildu koalizioak abertzale eta ezkerrekoak diren hainbat indar barne hartzen ditu. Baina, Aralar ez dago hor. Horrek zuen emaitzetan eraginik izango duela uste duzue?**

Nik esango nuke guk jaso ditza-kegun botoak inoiz inorri ez zaizkiola harrapatzen. Bakoitza bere esparruan ondo markatuta dago. Hor arazoak egon daitezke identitate aldetik. Lehen gu gaiztoak izan ginen EBrekin joateagatik. Baina, EBko zati bat hor dago. Politikak lagun asko egiten ditu. Ahalik eta batuen joaten garen neurrian indar askoz handiagoa egingo dugu. Hori garbi dugu. Gobernuan egon ginenean 3 alderdi oso desberdin egon ginen. Gai izan ginen elkarrekin aurrera egiteko, eta gauza asko egin ginituen. Gaur egun zaila izango litzateke hori errepikatzea, pertsona berdinak ez direlako egongo, eta pertsonak egiten dute horrelako gauza batek funtziona araztea.

**Zergatik eman behar zaio botoa Aralarri?**


Esaten duguna konplitzeko gai garelako eta hankak lurtean ditugulako.\*

“Plan orokorra berraztertu behar da; Lehentasuna Amueri eman”

“Amets gaiztoa izan dugu denok, baina badirudi ari dela argitzen”







tuzten, eta batera egin dezakegun guztian lagundu. Gu edozeinekin lana egiteko prest gaude. Kontua ez da bakarrik etxebizitzak egitea, baizik ikustea inguruko herrietako prezioak eta hemen daudenak nolakoak diren. Gure asmoa da neurri batzuk hartzea gazteek etxebizitzetara heltzeko errazago izan dezaten.

**HABEren zuzendari nagusia zaren partetik, hizkuntza normalizazioaren gaia nola landuko duzue hautes programan?**

HABE araututa dago legez eta udal euskaltegiei laguntzak banatzeaz aparte, ez gara sartzen bestelako kontuetan. Jakin dut euskararen mahaia bat duzuela, eta garrantzitsua iruditzen zait. Ez dakit nola funtzionazten duen zehatz, baina horrelako organismo baten ekimenak laguntzekoak izango lirakeke.

**Azpeitian euskararen inguruan orain arte egindako lanak ezagutzen al dituzu?**

Lan konkretuen berri ez dut. Badakit EBPN onartuta daukela

Udalak eta Udal euskaltegia badagoela.

**Zer helburu ditu PSE-EEK hauteskunde hauetarako?**

Orain arteko emaitzak hobetzeko asmoarekin gatoz. Beldur hori badugu, jendeak alderdi sozialista erraz identifikatzen baitu krisiaren errudun. Baina, jendea badoa konturatzen aurrerapausuak eman ditugula eskuinak sortutako krisia gainditzeko. Eta horrek izan dezaken eragina ikusiko dugu hauteskundeetan.

**Herrikoa ez izatea oztopoa izan daiteke botoak eskuratzeko.**

Bai, izan daiteke, baina nik herri-tarrei esango nieke kontutan izateko Azpeitia mundu guztiarena dela eta mundu guztia azpeitiarrrena. Nik ezagutu ditut Donostiko Udalean azpeitiarrak eta azkoitiarrak: Bastidatar batzuk, Sudupe, Berdenekoak, eta donostiarrak ere badugu aukera hona etortzeko. Nik badakit ondo hartuko nautela, borondate onarekin natorrelako.

**2004ean 356 boto lortu zenuzuten Azpeitian. Orain lau urte, 2007an, 337. Zinegotzia lortzeko asmorik bai?**

Bai. Lana egitera etorri beharko dut, eta gogor jokatu genuke Azpeitia ez dadin izan herri isolatu bat. Hemengo jendearekin izan dut harremana eta jendeak ilusio handia du. Badakite ni beraien hitza entzuteko prest nagoela eta hemengo hitza beraiei emateko.

**EAJk esan du gehiengo absolutuaren bila joango dela?**

“Badakit ondo hartuko nautela, borondate onarekin bainator”

“Bilduk ETARI desagertzeko eskatzea funtsezkoa da”

Dugun panorama politikoarekin zaila izango du.

**Gehiengo osorik ezean, alderdien artean akordioak egin beharko dira.**

Hori argi eta garbi dugu. Alderdi sozialistak Euskadin, behinik behin, beti izan ditu politika horretarako ateak zabalik, eta hemen ere ez dizkiogu ateak inori itxiko. Horretan Udal osoarekin lan egiteko prest gaude.

**Zer iritzi duzu Sortu ez legez-tatu izanaz?**

Hori epaitegien esku dago eta guk epaitegiek esaten dutena errespetatuko dugu. Sortuk eman dituen urratsak ez nuke esango bide txarretik joan direnik. Beharbada hanka motz gertatzen dira. Nik uste dut falta zitzaiola beraiek guri, alderdi sozialistari, eskatzen diguten balentia. Esateko ETARI utzi armak behingoz eta jarri gaitzen politika egiten. Eta nonbait epaileek ere horren falta ikusi dute eta ez dute konfiantzarik beraiekin.

**Bildu izango da, azkenean, bozetan.**

Hitz egiteko ateak ez ditugu itxita, baina guk garbi dugu Bildurekin ez dugula akordiorik egingo, beraiek beste jarrera bat hartzen ez duten bitartean. Bilduk ETARI desagertzeko eskatzea funtsezkoa da. Eta, beharbada norbaitek esan dezake EAK eta Alternatibak ez dutela zerikusirik, baina EA eta Alternatiba Bilduren %3 bakarrik dira, eta Bilduri inposatu behar diote eskaera hori. Gu horren zain gaude.

**Ezker abertzalea hauteskundeetatik kanpo gelditu zenean lortu zuen PSE-EEK ordezkari-tza Azpeitian.**

Ez litzateke oso pozgarria zinegotzi ateratzea baldintza horietan. Ir-tetekotan denon lehia herriaren aurrean jarrita irten nahi dut.

**Zergatik eman behar zaio botoa PSE-EE alderdiari?**

Bereziki politika sozialei begira egiten dugulako lana, ezkerrearen ikuspegitik. Konfiantza eskatzen diot jendeari. \*



# MANUEL PALACIO

PPren alkategaia

## “Ni ez naiz ‘paratxutista’ bat”

Donostiarra da popularren alkategaia. Azpeitia eta inguruak ezagutzen dituela dio, eta berak aukeratu duela hemen hautagai izatea. ✍️📷 Mailo Oiarzabal

**B**ilbotik bueltan iritsi da Manuel Palacio Uztariaren egoitzara. Azpeitiko kaleetan ibiltzeak “oroitzapenak” dakarziola dio, baina beldur da: zinegotzi kargua lortuz gero, bakarrik eta lasai ibiltzeko aukerarik ez duela izango iruditzen zaio.

### Politikan ba al duzu esperientziarik?

16 urte nituenetik nago Alderdi Popularrean afiliatuta. Orain dela urte batzuk PPren Justizia eta Barne batzordearen arduradun izan nintzen. Alderdi barruko lanean esperientzia zabala daukat, baina kargu publikorik ez dut izan. Udal hauteskundeetan Azkoitiko, Legazpiko edo Aiako zerrendetan aurkeztu izan naiz, baina zinegotzi kargurik lortu gabe.

### Zer dakizu Azpeitiaz?

Bezeroengana etortzen nintzenetik ezagutzen ditut Azpeitiko kaleak. Jatera ere sarri etorri izan naiz, eta zezenketetara ere bai.

### Eta Azpeitiko udal politikari buruz, zer dakizu?

Badakit arazoak izan dituztela. Une honetan informazioa neurganutzen ari naiz, eguneratzen. Dena dela, uste dut herritarok nahi duguna udalekin harremanetan jartzeko erraztasun gehiago izatea dela. Krisi une hauetan, udalak ulerkerago izatea garrantzitsua dela deritzot.

### Zer proposamen ditu PPK Azpeitirako?

PPk udal guztiei zuzendutako programa orokor bat aurkezten du, jarraibide bat. Udal bakoitzak

### DATUAK |||||

|||Jaio. 1967ko irailak 7.

|||Herria. Donostia. |||Bizi tokia. Donostia. |||Lanbidea.

Telekomunikazio enpresa batean lan egiten du.



gero bere arazo eta beharrak izaten ditu, baina une honetan oinarritzkoena, funtsezkoena, herritarri laguntzea da. Badakit hori esateak utopia kutsua duela, baina hala izan behar du. Azken batean, neu enpresa batean ari naiz lanean, eta badakit enpresak zer ari garen pasatzen. Hiru ume-ren aita ere banaiz, badakit hila-bete bukaerara iristea zenbat kostatzen zaidan. Eraikuntza ondo ez dabilen honetan, udalak herritarrak are eta gehiago estutzen ari direla ematen du, gainera, lagundu beharrean. Diru kontuetan zorrotz jokatu behar da; horrenbeste badaukat, hori gastatu ahal izango dut.

**Kanpotik etorrita, ez da erraza izango herri batera-**



**ko programa zehatzak lantzea.**

Egoitzarik izan gabe, eta afiliatu gutxi izanda, kaleko egunerokotasun hori ezin dugu bizi eta gabezia sortzen digu horrek, herritarren beharrak ezagutzerakoan. Baina saiatzen ari naiz, Azpeitiaz informazioa handik eta hemendik biltzen. Elkarrizketa hau hemendik hamabost egunera eginez gero, erantzun zehatzagoak emateko pronto izango nintzateke.

**Zer bide ari zara erabiltzen informazio hori jasotzeko?**

Ezagunekin eta lagunekin hitz egiten ari naiz, noski, eta hemerrotekaz ere asko ari naiz baliatzen. Herritarrengan konfiantza izatea ere bada; laguntzeko eta gauzak hobetzen saiatzeko asmoarekin etorriko ez banintz, zertarako aurkeztu beharko nuke? Sei hilabete, lau eta sei urteko umeen aita naiz; oso ondo dakit bizimodua zaildu egingo zaidala.

**Eta zerk bultzatu zaitu, orduan, aurkeztera?**

Ni ez naiz Azpeitira datorren 'paratxutista' bat. Garai batean ho-

rrela esaten ziguten, kanpotik etorri eta, kargua lortu ezean, desagertu egiten ginela argudiatuta; hori mundu guztiak pentsa dezake, baita zeuk ere. Azpeitian aurkeztea neuk aukeratu dut, ez nau inork bidali, ez nau inork hor jarri; inguru hau ezagutzen dut, eta gustuko dut. Niretzat motibazioa nire familia da. Gauzak aldatzea nahi badut, nire seme-alabek zerbait hobea izan dezaten nahi badut, ezin naiz beste pertsona batzuek egiten dutenaren zain gelditu. Denok kritikatzan dugu gauzak nola dauden, baina gero etxean gelditu eta ezer ez badugu egiten, orduan, ezin dugu kritikat. Etorkizunean 'ni saiatu nintzen behintzat' esan nahi diet seme-alabei.

**Zergatik ez duzue herriko jendedun zerrenda aurkezten?**

Beldurragatik da. Oraindik beldur asko dago. Pixkanaka ari garela uste dut, baina gizarteak asko aldatu behar du oraindik. Eta jendeak ez duela bizimodua nahastu nahi. Imajinatu Azpeitiko bat aurkezten dela, eta ez dutela kargurako hautatzen; nola aldatuko zaio bizimodua lagun horri, auzoen aurrean? Bai, Pilar Elias hor dago Azkoitian, baina oro har jendea ez da hain ausarta. Ni hautatzen banaute ere badakit ezingo naizela gaur ibili naizen bezala ibili, bakarrik eta lasai oinez, edo motorrean, gustatzen zaidan bezala. Motoa saldu egin beharko nuke...

**Bizkartzainik ez al duzu?**

“Oraindik beldur asko dago; gizarteak asko aldatu behar du”

“Aukeratzen ez banaute, Azpeitiko gaietan sakontzen jarraituko nuke”

Ez, inoiz ez dut izan; beste babesneurri batzuk bai, baina bizkartzainik ez. Eta nork nahi du bere bizitzan horrelako aldaketa bat izatea?

**Bildu izango da, azkenean, bozetan.**

Mundu guztia aurkeztea sinatzen dut, baina indarkeriari ezetz esandakoan eta indarkeria horretan egon ez den jendea dagoenean. Askoz politagoa litzateke gure herriarentzat denak aurkeztea, baina denak joko-arau berberekin aurkeztetotan.

**Kargua lortzen baduzu, zer helburu eta asmorekin etorriko zara Azpeitira?**

Nire apaltasunetik, eta jakin dezakedan apurretik, Azpeitiko herritarrek laguntzera nator. Udaletarako gure gobernu-programa esku artean dudala nator, toki batzuetan oso ondo funtzionatu duen programarekin, saiatzera nator. Oztopoak jarriko dizkidayela? Ba, segurua. Baina enpresa pribatuan ere jartzen dizkizute oztopoak.

**Eta kargurik lortuko ez bazenu?**

Aukeratzen ez banaute, Azpeitiko gai guztietan sakontzen jarraituko nuke, Azpeitira etortzen jarraituko nuke, hurrengo hauteskundeetan ordezkaritza lortu ahal izateko.

**Zergatik eman behar diote botoa PPri azpeitiarrek?**

Aurrena, irtenbideak ditugulako. Bigarren tokian, pertsona irekia eta baikorra naizelako. Eta, orain arte zer izan duten eta nola egon diren badakitelako. Nik aukera bat eskatzen diet. Udalean liskarrez betetako lau urtetatik datoz, baina askoz urte gehiago daramatzate Udalean PPren gobernurik ezagutu gabe. Beraz, gobernu txarrak edo hain onak ez direnak ezagutu dituzte [irribarrez dio].

**Zer emaitza espero dituzu hauteskundeetan?**

Ez naiz pronostikoa ematera auzartzen. Noski, neu izatea nahiko nuke. Baina, hori loteria bezala da.\*

# AITOR ARANGUREN

Hamaikabaten alkategaia

## “Argazkia sekula baino Lausoago dago”

Polarizatuta egon daitekeen indar banaketan Hamaikabat “tarte” geldituko dela uste du, aurreneko aldiz ordezkari bilatu. 📧📍 Mailo Oiarzabal

**E**Ako zinegotzi bezala Udalean bizi izan zuen “esperimentzia aberasgarria” errepikatuta nahi du, sigla berriekin. EAJren itzalpean identifikatzeak ez dio beldurrik ematen, “espazio propioa” dutela sinetsita.

**Zer eskainiko duzue, besteek eskaintzen ez dutena?**

Bere garaian EA EAJrengandik bereiztu zenean ez zegoen ideologian desberdintasunik eta urte luzeetan halaxe gobernatu dute batera, han eta hemen. Azken bi urte hauetan EAk beste bide bat hartu du, bere betiko oinarrietatik aldenduz, eta hortik etorri da Hamaikabaten sorrera. Erabaki zaila izan da. Alderdi berria gara, alderdi txikia, baina era berean esperientziaduna. Beharrezkoak gara

betiko abertzaletasun historikoaren indarra berreskuratzeko eta beharrezkoak gara Azpeitian.

**EAtik zatozte, baina EAJrengandik gertuago azaldu zarete. Gertutasun horrek ez al dizue zailduko espazio propio bat lortzea?**

Gu ez gara mugitu, EA mugitu da, beste puntara joanez. Guk argi izan dugu beti Hamaikabat bezala agertu nahi genuela hauteskundeotan. EAJren zerrendan independente bezala joatea ez genuen inolaz aurreikusten. Esan bezala, alderdi txikia gara, baina nortasun propioa dugu. Eskubiaren eta ezkerren artean dagoen zentro zabal horretan leku zabala eta plurala dagoela uste dut, eta guk hor dugu tokia. Espazio hori

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1963ko uztailak 24.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Estrategia Bulegoaren zuzendari da gaur egun.



ezin da alderdi handi eta bakar batera mugatu. Sanoa eta desiragarria da espazio horretan alderdi bat baino gehiago egotea.


**EAJtik EA, EAtik Hamaikabat...**

Egia da atomizazio handia eman dela euskal abertzaletasunean, bere alde onekin eta txarrekin. Uste dut egoera politikoa normaltzen doan heinean, eta badirudi normaltasun horretatik gero eta gertuago gaudela, blokeak zehazten joango direla. Ez naiz alderdien bategiteaz ari, baina bai alderdi ezberdinen arteko indar biltzeaz.

**Bildu hauteskundeetan izango da, azkenean.**

Hamaikabatek hori nahi du, aukera guztiak egotea mahai gainean





eta normalizazio politikoaren bidean sartzea Euskal Herria. Ezker abertzalearen ilegalizazioa ez da bidezkoa XXI. mendeko European. Ezker abertzaleak instituzioetan egon behar du politika egiten, iritzia ematen eta erabakiak hartzen azpiegituretan, politika sozialean, ekonomian eta abarretan.

### **EAJk eta Bilduk ez al dute botoaren polarizazioa indartuko?**

Nahiko polarizatu egon da orain arte ere. Azken zortzi urteetan nahiko gauza bitxia gertatu da Azpeitian. Orain dela zortzi urte EAJ

eta EA lehen aldiz koalizioan aurkeztu ziren, gobernuan egon ziren. Gero, gertatu zena gertatu zen, ANV jarri zen alkatetzan, Aralarrekin eta EArekin batera gobernatzen egon ziren bi urtez. Eta, gero, EAJ egon da gobernuan, gutxiengoarekin. Egundoko aldaketak egon dira azken zortzi urteetan.

### **Nola baloratzen duzu, azken lau urte hauetan Azpeitiko Udalean gertatu dena?**

Oso gauza arraroa izan da, eta uste dut aipatu dugun polarizazio hori areagotu egin dela. Alde ba-

tean daude, nire ustez, ezker abertzalea eta EA, garbi. Aralar ez nuke esango; ez dakit zenbateraino egon den eroso ere [Juan-kar Arellano], egin dituen adierazpenak-eta ikusita, eta uste dut oraindik eta deserosoago egongo dela. Eta bestaldean dago EAJ. Zentzu horretan, nik uste dut polarizatu egingo dela botoa, alde batera edo bestera. Gu hor tartean gelditzen gara. Lortzen dugun emaitzaren arabera, ikusiko dugu. Herri mailan, gainera, uste dut herri-ikuspegiak gauzak asko aldatzen dituela. Eta pertsonen arteko harremanak... Askotan ez du zerikusirik goi-mailako politikarekin. Argazkia sekula baino lausoago dago.

### **Azpeitia lokartuta ikusten duzula esan duzu. Zer dela eta?**

Sentsazio pertsonal bat da, baina ez da nirea bakarrik. Baten batek igoal pentsatuko du udal baten lana dela espaloiak egitea, parkeak egitea... eta bada. Baina uste dut etorkizunera begira, eta bereziki orain, krisi garaian, gauza bat ahazten zaigula: ekonomia. Lana, azkenean. Eta lana badago eta ekonomia ondo badoa, udal bat ondo joaten da, eta dirua dauka zerbitzu guztiak emateko. Zentzu horretan, uste dut Azpeitiak lo hartu duela. Bai, polita dago, baina enpresak joan egin dira, Loiola Berrikuntza Fundazioa Azkoitian dago; hemen zaborteia daukagu, konpostatze planta handitzea nahi digute, Zestoara doan errepedea desastre bat da...

“Alderdi handiek dituzten Loturarik ez daukaqu”

“Egundoko aldaketak egon dira azken zortzi urteetan”

Gauza askotan gelditu egin gara, lo hartu dugu, ez dugu exijitu. .

### **Plan Orokorra ere zeresana ematen ari da?**

Plan Orokorrekin gauzak garbi-garbi dauzkagu, eta beste alderdiei irakurri diegunarekin alderatuta, nahiko ikuspegi desberdina. Ni zinegotzi egon nintzenean ere, ideia bera genuen, eta zen Loiola eta Esklaben arteko espazio horrek izugarritzko kalitatea duela. Hori ez da etxete bete behar; Etxebeltzek ja ez dauka erremediorik. Guretzako espazio horrek, ahal bada, aisirako eta, bereziki, kirolerako leku bakar, bateratu eta modernoa izateko balio behar du. Horri lotuta, plaza, azoka plaza, Zelailuzeko fronte hori... Hor Udalak lurrak dauzka, eta berehala ekin diezaioke lanari. Eta herriaren erdi-erdian aritzeko aukera izatea da garrantzitsua, eta ez kanpora joatea. Corrugadosek alde egingo balu, hor sortuko litzatekeen aukera, Gipuzkoan beste inork ez daukan bezalakoa litzateke; eta ez hamar edo zortzi urterako, Plan Orokorra dion bezala, baizik eta hogeit edo hogeita bost urterako.

### **Zergatik eman behar dizuete botoa azpeitiarrek?**

Freskotasuna ematen diogu herriko politikaren egoerari. Beste aukera bat, indar, ilusio eta ideia berrieke. Alderdi handiek dituzten loturarik ez daukagu. Garbi-garbi eta garden-garden goaz, herriari begira egindako talde batekin, politikatik isolatuta egongo den taldea, azpeitiarrentzat etorkizuneko ikuspegi ilusionagarria duena. Horixe da nahi duguna.

### **Zer emaitza espero dituzu hauteskudeetan?**

Ez dakit, baina hain justu daude gauzak... EAJ gehiengo osoa lortzetik oso gertu gelditu zen aurrekoetan, baina ez zuen lortu, eta orain ere ez dut uste lortuko denik. Eta besteak, berriz, uste dut gehiengo hori lortzeko gai direla. Baina ez dakit, benetan. Zaila dago, ez dut batere garbi ikusten.\*

# Geroa eraiki nahian

Datorren legealdira begira, alderdiek proposamen ugari bildu dute programetan; enpleguaren arloak garrantzia handia hartu du. 📝📷 Ainitze Agirrezabala

## ETXEBIZITZA

**EAJ.** "Herri-lurra eskuratu BOEk egiteko, eta kooperatiba kudeaketa moduak bultzatu".

**BILDU.** "Alokairu publikoa da etorkizuna, eta horretarako udalak finantzazio ahalmen handiagoa behar dute".

**ARALAR.** "Alokairuko etxebizitza sozialak lehenestea proposatzen dugu, etxebizitza zaharrak berritzeko laguntzak ematea, eta etxabeak eta lokalak etxebizitza bihurtzeko prozesua arautzea".

**PSE-EE.** "Kalitatezkoa eta eskuragarria den etxebizitza sustatzeko erakundeen arteko akordioak bultzatuko ditugu".

**PP.** "Hirigintza garapen berrietan lurraren %50a sustapen publikoko etxebizitzetara bideratuko dugu".

**HAMAİKABAT.** "Zelailuze-Frantziskanetako ibilbidean eragin, etxebizitzak eraikiz. Etxebizitza politika publikoaren oinarria alokairuzkoa izan behar du".

## HIRIGINTZA

**EAJ.** "Lurpeko aparkalekuak bideratu Enparantza Nagusian eta Euskal herria-Sanjuandegin. Saihesbidearen proiektua gauzatu. Enparantza Nagusia, azoka plaza eta Euskal Herria plaza oinezkoentzako jarri".

**BILDU.** "Corrugados eta lanpostuak herrian mantentzea es-

trategikoa den bezala, estrategikoa da altzairutegia Lasako eremura aldatzea. Eta, gelditzen den eremu librea herriarentzat hazkunde-espazioa izango da".

**ARALAR.** "EAJ, EA eta Leku Eder 'tripartitoaren' arteko akordioari ez esaten diogu. Plan Orokorra berraztertu eta eraginkorragoa bideratu, etxe gehiegikeriarik gabe. Amue eremuari abiadura handiagoa eman eta Esklabetako eremuan moratoria. Era berean, Alde Zaharra biziberritzeko pausoak sendotu eta Amueko eremuarekin txertatzen joan. Diputazioak bultzatutako eraikuntza makrorik –bariantea– ez".

**PSE-EE.** "Hirigintzako politika berri bat proposatzen dugu, hazkunde txukun eta zentzuzko batekin. Azpeitiarrei bizi-kalitate handiagoa ematea dugu helburu, ingurumenari zor zaion begirunearekin bateragarri eginez".

**PP.** "Gutxiago kutsatuko duten garraiobide alternatiboak bultzatuko ditugu, eta herri kanpoan aparkalekuak eraiki".

**HAMAİKABAT.** "Herriak barrurantz hazi behar du, eta ez kanporantz. Corrugadosko eremua berreskuratu behar dugu eta ber-

tan eragin, enpresa Lasara joaten denean. Esklaben eremua toproposa da kirol ekipamendu bakar batentzat eta aisialdirako".

## Enplegua

**EAJ.** "Larrin-Larre egokitu indutriarako gune berri moduan. Corrugados Lasara lekualdatzerakoan lanpostu guztien babes jarri aurrealdintza moduan. Cidemco-Tecnaliarekin hitzartu Azpeitiaren berrikuntza plana".

**BILDU.** "Industria Azpeitiko motore ekonomikoa da, eta etorkizunean ere hala izatea nahi dugu. Horretarako berrikuntza eta ikerketa sustatuko ditugu. Larrin eremu industrialean ikerketa zentro bat sortu nahiko genuke, eta baita eskualdeak behar duen formakuntza profesionalerako zentro integral bat ere".

**ARALAR.** "Lehenengo sektorea biziberritzea ezinbestekoa da etorkizuna izatea nahi badugu. Baserritarren eta kaletarren harremana areagotu".

**PSE-EE.** "Teknologia berrien eta berrikuntzaren esparruan Udalak enplegua sortu eta ehun ekonomiko-enpresariala ezabatu dezan apostu egiten dugu".

**PP.** "Izapideak arinduko ditugu, ekintzaileei eta enpresa berriei erraztasunak emateko".

**HAMAİKABAT.** "Udalak aktibo eragilea izan behar du krisiari aurka egin, jarduera ekonomikoa sustatu eta enplegua sortzeko. Udala bat ekintzaileei lagunduko diena, enpresa berriak erakarriko dituena, Azpeitia zientzia eta teknologiaren mapan kokatuko duena, merkataritzari bultzada eman eta baserritarrekin elkarlanean ariko dena".

## GIZARTEA

**EAJ.** "Egoitza berria eraiki adineko eta mendekotasuna duten pertsonentzat, azpeitiarrak herrian geratu daitezten. Familia eta lana bateratzeko aukerak bultzatu".

**BILDU.** Behar sozialei erantzun zion Udala nahi dugu. Horretarako, azken urteetan martxan jarritako hainbat proiektu sakondu nahi ditugu: San Martin egoitzaren anpliazioa, esaterako.

**ARALAR.** Zerbitzu publikoek aukera-berdintasunaren eta gizarte orekaren berme izan behar dute, herri-eredu kohesionatua eta orekatua bultzatzeko. Gure lehentasunak dira: zaharrentzako



Langilegoari eskainitako eskultura, Landetako biribilgunean.

egoitzak, eguneko zentroak eta zahar-txokoak bermatzea eta lehen mailako gizarte-atentziarako zerbitzuak bermatzea.

**PSE-EE.** "Gizarte-ongizate arloari lehentasuna emango dion Udala nahi dugu, Azpeitiko beharrek bat datozen material eta giza baliabideekin hornituz".

**PP.** "Etxeetan ematen den laguntza indartuko dugu, zerbitzu anitzak eskainiz".

**HAMAİKABAT.** "Pertsonen ongizatearen alde lan egingo dugu, gizarte politikak indartuz. Etxe etxeko laguntza handituko dugu, eta herritarrek lana eta familia modu egokian uztartzeko zerbitzuak sortuko ditugu".

## KULTURA

**EAJ.** "Aisialdiko eta kulturako jarduera berrietan interlokutore izan. Kultur ekimen eta jarduerak bultzatu, San Agustin eta Soreasuko baliabideak koordinatuz".

**BILDU.** "Sanagustingo funtzionamendua kultur taldeen lidergo-arekin aurrera ateratzen ari den moduan, Soreasurekin ere berdin jokatu dugu. Soreasu proiektu faraonikoa izanda, krisi ekonomikoaren testuinguruan eztabaidagarria da. Sakon aztertu beharko da bere funtzionamendua eta bideragarritasuna.

**ARALAR.** "Aralarrek herriko sortzaileak eta talde eragileak izango ditu kultur erreferente nagusitzat. Lana egingo dugu sanagustin indartu eta bideragarritasuna emateko. Lana egingo dugu Soreasu eta Sanagustin eremuek elkarlanerako pausoak eman eta bien sinergiak aprobetxatzeko. Era berean, liburutegia kultur azpiegitura erabilienetakoa izaki, azpiegitura egikiak jartzeko. Gai garrantzitsuetan herriri hitza ematearen aldekoak gara.

**PSE-EE.** "Gizarte-kohesio eta eta integrazioarako faktore bezala defendatzen dugu kultura. Ezagutzaren ateak ireki behar ditu kulturak, eta pertsonen sormena eta interesa piztu".

**PP.** "Kultur ondare eta ekipamenduen iraunkortasuna bermatuko dugu, ekimen pribatuekin elkarlanean".

**HAMAİKABAT.** "Sanagustin indartuko dugu erreferentziazko zentru eta herri topagune bezala. Kudeaketa koordinatua Soreasurekin. programazio berritzailea, parte hartzailea eta plurala".

## BESTERIK

**BILDU.** "Lan egiteko gardentasuna eta parte hartzea izango ditugu oinarri. Udala herritarren tresna bilakatu nahi dugu eta ez herritarrengandik urrun dagoen instituzioa. Herri antolamenduari dagokionez, garraio publikoaren aldeko apostua egiten dugu: Zumaia-Zumarraga trenbidea berreskuratu nahi dugu, eta eskualde eta beste eskualdeetarako garraio publikoa hobetu".

**ARALAR.** "Kalitatezko garraio-sistema publikoa jartzea eta Urolako trenaren gaiari abiadura handiagoa ematea proposatzen dugu. Zaborren kudeaketa egokia bideratu behar da, gaikako bilketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Kirol arloari tratamendu integrala eman".

